


The background features abstract geometric shapes in red and grey. In the top right, there is a red circle with a grey line extending from it, ending in a smaller red circle. In the center, a large grey arc is positioned behind the word 'Cein'. To the left, a large red circle is partially visible, with a grey line curving around it and ending in a smaller red circle. The word 'Cein' is written in a bold, black, sans-serif font, with a red arc above the 'i' and 'n'.

2024KO MEMORIA

EUSKARAZKO BERTSIOA





Ekintzailletza eta berrikuntza, eraldaketa bikoitzaren funtsezko tresnak



Mikel Irujo

Industriako eta Enpresen Trantsizio
Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria

Eraldaketa digital eta ekologiko batean murgilduta gauden une garrantzitsu honetan, S4 Espezializazio Adimentsu eta Jasangarriaren Estrategiak markatutako ibilbide-orri bat dugu, aldaketa hori ahalik eta ondoen finkatzea lortzeko.

Hala eta guztiz ere, egoera hain desafiataile horretan, ekintzailtzak garrantzi handiagoa hartzen du, eta gauzak modu berritzaile, eraginkor eta adituan nola egin behar ditugun jakiteko tresna bihurtzen da. Aukera horrek arriskuak eta erronkak ekartzen ditu berekin, baina ahalbide eta ikaskuntzetarako bidea ematen digu. Eta irakaskuntzak, inongo zalantzarik gabe, bereziki lagungarriak dira eraldaketa handiari aurre egiteko.

Erronka horri eusteko, Nafarroan ekintzailtza-ekosistema sendoa dugu (administrazioa, laguntza-erakundeak, unibertsitateak, trakzio-enpresak, startupak, inbertsio-erakundeak, zentro teknologikoak, klusterrak eta abar), aldaketaren ibilbidean bultzatu eta jarraitzeko eta bizi-kalitate onena duen estatuko komunitaterik onena izaten jarraitzeko komunitate gisa posizionatzen gaituena.

Posizionamendu hori argi eta garbi islatzen da azken GEM-azterketan (Global Entrepreneurship Monitor). Azterketa horrek adierazten duenez, enpresa-jarduera finkatuaren tasa (42 hilabetetik gorako bizitza duena) % 8,1ean kokatzen da Nafarroan, estatuko batezbestekoaren gainetik (% 6,7), eta Nafarroa nabarmentzen du ezarritako enpresen kopururik handienarekin, Europako herrialdeen aldean (GEMen arabera Europako ekintzailtza-tasarik handiena duten Herbehereen gainetik).

Ikusmolde garbi horrekin, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentutik gogoeta- eta kontsulta-prozesua gidatu dugu eragile sozioekonomikoekin, Industriari buruzko Lege berriaren zirriborroa jasotzen duena eta gure Komunitatean ekintzailatza eta berrikuntza bultzatzen dituen atal bat azpimarratzen duena.

Horregatik, legeak hainbat ekimen proposatzen ditu: Nafarroa “Berrikuntza Testatzeko Eskualdea (RTI)” izango da, enpresa berritzaileen finkapena errazteko, ingurune kontrolatu eta aldeko batean kontzeptu-probak, proba pilotuak eta ebaluazioa egin ahal izateko; administrazioak “sandbox erregulatzailerak” sortuko du, enpresa berritzaileek beren produktu, zerbitzu, negozio-eredu eta entrega-mekanismoen proba errealak egiteko tresna gisa, erregulazio-betekizun jakin batzuetatik salbuetsita; langune kolaboratiboak sortuko dira eta baliabide erabilgarrien erabilera efizientea sustatuko da, bereziki enpresa-dentsitate txikiko eremuetan, beste zenbait ekimenen artean.

Aldi berean, gure IV. Ekintzailatza Plana abian jarriko dugu, enpresak hurbiltzeko eta trantsizio ekologiko eta digital bikoitzera egokitzeko programetan oinarritua. Emakumeen lidergoa bultzatuko dugu, eta berrikuntza irekia landuko dugu, enpresa finkatuak enpresa emergenteekin elkartzeko.

Azkenik, CEINek Nafarroa osoan presentzia izatea ere lortuko dugu, lurralde-aliantzak sortuz, eta betiere munduari, Europari begira.


Hori lortzeko, konpromiso- eta erantzukizun-sen handiko pertsonak osatutako taldea dugu. Goi-mailako profesionalak dira, eta azken urteotan María Sanz de Galdeano Arocena izan dute zuzendari, erronkaz eta ikaskuntzaz betetako proiektu arrakastatsuen garapena bultzatzeko. Eskerrik asko, Maria. Eskerrik asko hainbeste urtetan CEINen egin duzun lan bikainagatik eta arduraz eta gorputz eta arima aritu izanagatik.

Besarkada handi bat guztiontzat, ilusioz betea, aurrean dugun urteari aurre egiteko,

Mikel Irujo Amezaga

**Emakumeen lidergoa
bultzatuko dugu. Horrez
gain, finkatutako
enpresak eta gorabidean
dauden enpresak
batzeko helburuarekin
berrikuntza landuko
dugu.**

Ekintzailetza esparru guztietan bultzatzen



Uxue Itoiz

CEINeko zuzendari kudeatzailea

Iaz, 2024an, CEINen gure lana indartu genuen eragile aitzindari izaten jarraitzeko gure jarduera-arloetan, hau da, ekintzailetzan eta enpresa emergenteak bultzatzeko lanetan.

Lan horri esker lortu genuen European Business and Innovation Centre Network (EBN) sareak —sare horretako partaide gara— bultzatutako EU-BIC Excellence Awards sarietan finalista izan den estatuko erakunde bakarra izatea,

sarearen 40. urteurrenean. Zehazki, CEIN HEALTH osasun-arloko gure ekintzailetza-ibilbideagatik izan ginen sarietarako hautagai.

Digital Enterprise Show nazioarteko biltzarraren esparruan deitutako European Digital Mindset Awards sarien finalera ere iritsi ginen, ekintzailetza teknologiko-digital eta zientifikorako laguntza espezifikoaren bitartez prozesu ekintzaileari lotutako digitalizazioari egiten diogun ekarpenagatik.

Gainera, Nafarroan arrakasta-tasa handiko ekintzailetza dugula adierazten jarraitzen dute zifrek. Horren erakusgarri, gure ekimen ekintzaile finkatuen tasa, hots, 42 hilabetetik gorako bizitza dutenei dagokiena, % 8,1ean kokatu du GEM-indizeak aurtengo ere. Zifra hori Europako batezbestekoaren (% 7,3) gainetik dago.

CEINen jarduerak hainbat alderdi hartzen ditu, hasi proiektuak detektatzetik eta negozio-eredua definitzera eta enpresa bereizgarriak abian jartzera iritsi arte, startup berritzaileen hazkundea eta eskalatzea ahaztu gabe, helburu garbi batekin: enpresek arrakasta-bermerik handienak izatea.

Ruta 31 azeleratzailearen eta zenbait azeleratzaile espezializaturen bitartez, gure lantalde teknikoak 470 enpresa-proiekturi baino gehiagori eman die aholku. Eratu diren unean 129 enplegu sortu dituzten 95 enpresa sortu berri izan dira horren emaitza.

Gainera, gure mintegietan zerbitzu espezifiko eta indibidualizatuekin lan egin duten 43 startup berritzaileen hazkundea eta eskalatzea bultzatu dugu, nazioko eta nazioarteko esparruko inpaktu handiko ekitaldietan parte hartzea azpimarratuz, haien proposamenak ezagutarazteko, harremanak ezartzeko eta inbertsio-erakundeekin konektatzeko aukera izan dezaten.

Osasuneko, arlo teknologiko-digitaleko eta nekazaritzako elikagaien arloko prozesu ekintzaileek gure ibilbide-orria markatzen jarraitu dute, lurraldearentzako jarduera-eremu estrategiko gisa. Sektore horiei zibersegurtasuna gehitu diegu, gaur egun edozein enpresaren jasangarritasunerako ezinbestekoa, Nafarroan INCIBE Emprende programa inplementatzea dakarren programa espezifikoko batekin.

Hori guztia posible da, halaber, CEINen sektore publikoarekin eta pribatuarekin lankidetzan ari garelako. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalari emandako laguntzagatik, baita egunero ekintzaile guztiei eta CEINi ekintzailatza sustatzen laguntzen dieten trakzio-enpresei eta mentoreei ere. Aurten, 15 enpresa izan ditugu mentore, 14 startup garatzen laguntzeko.


Gure etorkizun hurbilenari begira, 2025ak gure IV. Ekintzailatza Plana ekarriko digu. Estrategia hori parte hartzeko prozesu batetik sortuko da, dagoeneko harremanetan baikaude Nafarroako lurralde-eragile guztiekin, haren edukia adosteko eta gure lurrarentzat garrantzitsua izan dadin lortzeko.

Besteak beste, jasangarritasunean, ekonomia zirkularrean eta zibersegurtasunean oinarritutako eskaintza jasoko dugu, trantsizio bikoitza aukera bihurtzea lortzeko. Emakumeen lidergoa eta ekintzailatza bultzatuko ditugu. Berrikuntza irekia landuko dugu, enpresa finkatuak eta enpresa emergenteak uztartuz, eta lurralde-aliantzak sortuko ditugu, betiere munduari begira, Europari begira. Azken batean, elkarlanean eta espazioa partekatzen jarraituko dugu CEINen familiarekin bat egin nahi duen, ekintzailatza sustatu eta Nafarroa egunetik egunera lurralde hobea eta, jakina, ekintzaileagoa izatea nahi duen jende guztiarekin.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi nizkieke Nafarroako Gobernuari, bere konfiantzagatik eta finantza-laguntzagatik, eta erakunde eta enpresa laguntzaileei, beren lankidetzan eta laguntzagatik. Eta, jakina, CEIN gogoan duten eta gure lanari zentzua ematen dioten ekintzaile eta startup guztiei, horrela lortuko baitugu guztion artean gure eskualdeari balioa ematen jarraitzea.

Uxue Itoiz Mariñelarena

**CEINen enpresek
arrakasta-bermerik
handienak izan
ditzaten lan egiten
dugu.**



AURKIBIDEA

9

CEIN GARA

13

CEIN STARTUP DAY

17

INÍCIATE SARIAK

31

LUCE

25

RUTA 31

29

CEIN HEALTH

33

CEIN DIGITECH

39

CEIN AGROFOOD

43

CEIN CYBERSECURITY LAB

47

IMPULSO EMPRENDEDOR

49

STARTUP LEADERS BY CEIN

51

IRUÑA EKINTZAILE

53

CEIN MINTEGIAK

57

LANDA TURISMOKO EKINTZAILETZA

61

EMAKUMEA ETA LIDERGOA

65

IRIS-EDIH EKINTZAK

67

NAVARRA EMPRENDE (NAFARROA EKINTZAILE)

69

LAGUNTZA TEKNIKOA





Qin'

CEIN GARA

Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzaren Europako Zentroa (CEIN) inpaktu handiko ekintzailetzari eta startup berritzaileen eskalatzeari laguntzeko foru-komunitateko erreferentziazko erakundea da.

Gure lurraldearen garapen ekonomikoa indartzea helburu duen Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoa gara. Eta eginkizun hori betetzeko, ekimen ekintzailea sustatzen dugu, enpresa berriak sortzen laguntzen dugu, enpresa-hazkundera bultzatzen dugu eta enkarguak kudeatzen ditugu sozietate instrumental gisa.

Teknologia eta ezagutza sortzen duten unibertsitateetan eta esparru estrategikoetan talentu ekintzailea aktibatzen dugu.



Enpresa-proiektu berritzaileak azeleratzen ditugu, hazteko anbizioa dutenak, bereziak eta bereziak.




Startup berritzaileei laguntzen diegu eskalatzen eta merkatu berrietarako jauzia egiten.



Hori guztia gure ekintzailetza-ekosistemaren laguntzarekin. **2024. urtean** garatu genuen **jarduera** zehatz-mehatz ezagutzera gonbidatzen zaitugu.

ARDURAPEAN
HARTUTAKO
PROIEKTUAK
474



SORTUTAKO
ENPLEGUAK
129



2024
ZIFRETAN


SORTUTAKO
ENPRESAK
95



STARTUPETAKO
ENPLEGUAK
260



ENPRESEN
INBERTSIOA
2,3M




MINTEGIETAKO
STARTUPAK

46



EKINTZAK

+450



PARTE-HARTZAILEAK

+3.700




INPAKTU HANDIKO
EKITALDIAK

13








Gain

Startup Day



CEIN STARTUP DAY

“Meet. Connect. ScaleUp” lemapean, “CEIN Startup Day” ekitaldiaren laugarren edizioak, enpresa emergenteetako inbertsioa ardatz harturik, harremanetan jarri zituen startupak, inbertsio- eta finantza-erakundeak, korporazio handiak, pertsona ekintzaileak eta erakunde publikoak eta pribatuak, ekintzailtza-ekosistema nazionala eta eskualdekoa bultzatzeko asmoz.

Jardunaldian zehar (Baluarten egin zen azaroaren 14an), osasunaren, informazio-teknologiaren eta nekazaritzako elikagaien eta jasangarritasunaren teknologiaren sektoreetako startupen eta proiektu emergenteen aurkezpenak egin zituzten inbertsio-funts espezializatuen eta inbertsio-ibilgailuak dituzten korporazio handien aurrean. Gainera, topaketa indibidualak egin ziren startupen arduradunen eta inbertsio-erakundearen eta korporazioen artean, alde aurretik agendan hitzartuak.



Bestalde, hainbat mahai-ingurutan, zenbait esparrutan sakondu zuten, hala nola startupetako inbertsioaren etorkizunean edo korporazio handiek enpresa emergenteak garatzeko eta eskalatzeko dituzten programetan. Era berean, zientzian eta teknologian inbertitzeko tresnak eta eraldaketa digitalerako estrategia izan zituzten aztergai.

Topaketan, gainera, errekonozimenduak eman zizkieten pertsona ekintzaileei eta gure ekosistemako startupen.



Parte hartu zuten startupak eta proiektuak
39

Gizonak
221

Investors y corporates
48

Emakumeak
180

Startupen, inbertitzaileen eta korporazioen topaketak
100

Errekonozimenduak

- Ruta 31 programaren bidez sortutako enpresak
- 2024an enplegu gehien sortu duen CEINeko berrikuntza-mintegietan instalatutako startupa
- CEINen berrikuntza-mintegietan instalatutako startuparen ibilbidea
- "TOP101 Spain Up Nation" errekonozimendua duten startupak





INÍCIATE SARIAK

INÍCIATE SARIAK

2024. urtean Iníciate sarien hamargarren edizioa egin da. Sari horien helburua da enpresa-proiektu berriak sustatzea, ekimen ekintzailea eta berrikuntza errekonozitzea eta Foru Komunitatean enpresa-proiektu teknologiko berrien detekzioa bultzatzea. Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko

Departamentuak finantzatzen ditu.

“Negozio-ideia teknologikorik onena” eta “Unibertsitateko negozio-ideia teknologikorik onena” izan ziren deialdi berri horren bi kategoriak, 6.000 euroko sari banaz hornituak, 11 proiektu finalistaren hautagaitza izan zutenak.



“Critical Match” aplikazioak irabazi zuen “Negozio-ideia teknologikorik onena” kategoriako saria. Aplikazio horren bidez, erabiltzaileek beren rol-mahaiak pertsonalizatu ditzakete, beren beharretara egokitzen diren lehenagoko mahaiekin bat egin dezakete, eta beren komunitateen kudeaketa optimizatzen duten ekitaldiak sor ditzakete. Borja Sánchez Villaverdek, Julio Martínez Martínez-Checak, Héctor Marchesik, Hugo Barzanok, Juan Grennerrek eta Gorka Pitarchek osatzen dute sustapen-taldea.

“Unibertsitateko negozio-ideia teknologikorik onena” kategorian “Uroasis” proiektuak eskuratu zuen saria. Bere proposamena airearen hezetasunetik ura lortzea eta laboreen ureztatze automatizatua uztartuko dituen sistema bat sortzea da, eta Christian Duarte eta Sergio Erramuzpek sustatzen dute.

Saritutako ekimenek, eskudiruzko saria lortzeaz gain, azelerazio-programa espezializatueta batean sartzeko aukera izango dute, eta CEINEko Berrikuntza Mintegian sei hilabeteko doako egonaldia egin ahal izango dute.

PROIEKTU FINALISTAK

- Energia-biltegiatze mekanikoa
- La Casa del Risco upeltegia
- CulturApp
- FARO
- Koaling
- OPTime
- Th(re)ad
- TickMi
- VisionDAP

Proiektuak

27

Gizonak

21

Emakumeak

21





LU
CE

LUCE

CEINek hainbat programa eta jardura hedatu eta artikulatzen ditu ekintzailtza, proiektuen detekzioa eta enpresa berrien abiaraztea sustatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), betiere Enpresa Berritzaileak Sortzeko Unibertsitate Laborategitik (LUCE).

2024an, aurreko ekitaldian esparru teknologikoaren barruan abian jarri ziren ekintzailtza-prozesuetan espezializatutako programak amaitu ziren: Oinarri teknologikoko ekintzailtza eta METAtalent. Programa horietan 18 proiektuk parte hartu zuten. Parte hartu zuten ekimenak aurkezteko azken jardunaldian bi programa horietan garatutako Elux eta InCommon proiektuak errekonozitu zituzten.

Gainera, programa espezifikoak eman ziren NUPeko bost masterretan, ikasleek ahalik eta modurik errealean ikus dezaten, bertatik bertara, ekintzailtza-proiektu bati heldu edo aurre egiteak berekin zer dakarren.

Ekintzailtzari buruzko saioei dagokienez, ikasgelan zein CEINen instalazioetan garatzen dira (batez ere graduako azken ikasmailan). Saio horien artean, topaketak egiten dira bere enpresa LUCEren laguntzarekin sortu duen edo bere jardura CEINeko Berrikuntza Mintegian garatzen duen ekintzaile batekin, bere esperientziaren berri eman dezan.

LUCEk aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu bat ere badu, NUPen jatorria duten enpresa berriak sortzeko. Guztira 30 proiektuk hartu zuten parte zerbitzu horretan 2024an.



“Oinarri teknologikoko enpresak sortzea” eta “METAtalent” proiektuak

18

Masterretan emandako programak

- Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterra
- Nekazaritzako eta Landa Inguruneko Ingeniaritzako Masterra
- Industria Ingeniaritzako Masterra eta Enpresen Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra
- Ingeniaritza Biomedikoko Masterra
- Bioteknologiako Ikerketa eta Berrikuntzako Masterra

Master programetan parte hartu duten gizonak

87

Master programetan parte hartu duten emakumeak

70

Ekintzailetza-saioak

29

Ekintzailetza-saioetako parte-hartzaileak

703

Landu diren proiektuak

30



The background is a light gray with faint, diagonal, wavy lines. In the top right corner, there is a red circle with a black line extending from its center, curving downwards and to the right, ending in a solid red dot. In the bottom left corner, there is a large solid red circle, and below it, a smaller red circle with a black outline. A black line extends from the bottom of this smaller circle, curving upwards and to the right.

UTA 31

RUTA 31

Ideia bat buruan duen eta gure komunitatean negozio bereizgarri eta jasangarri bihurtu nahi duen edonork Ruta 31 dauka eskura, CEINeko Nafarroako negozio-ideien azeleratzailea, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatua.

Ruta 31 zerbitzuan eskaintzen dugun ibilbideak, abiapuntuan, ekintzailtza-prozesu bat hasteak inplikatzeko duenera eta beren ideiak duen potentzialaren baloraziora hurbiltzen ditu ekintzaileak. Hurrengo urratsa negozio-ereduaren garapenean barneratzea da, proposamenak merkatuan benetako aukerarik baduen baliozkotzea eta negozioarako egoerarik egingarriena eta optimoena aztertuko duen ekonomia- eta finantza-plan bat egitea.

Hori guztia, tutoretza indibidualizatuak dituen talde-prestakuntzaren bidez, Nafarroako lurralde osoari zerbitzu pertsonalizatua eta irisgarria eskaintzeko.

Ruta 31 zerbitzuko taldeak guztira 384 enpresa-proiektu babestu zituen 2024an, eta 85 enpresa berri abian jartzen lagundu zuen.



Gainera, azeleratzaile horretan jatorria zuten 25 negozio sortu berriren jarraipena egin zuen, eta aholkularitza indibidualizatua eman zien negozio-ildo berrien esplorazioa, marketina, salmentak edo errentagarritasun-analisia bezalako esparruetan hazteko.

Bestalde, eta bigarren urtez jarraian, Caja Rural de Navarrak bi sari eman zizkien urtean zehar Ruta 31 zerbitzuan abian jarri ziren eta azeleratzailearen ziklo osoa bete zuten enpresa berriei. Izaera berritzailea dakarten eta enplegua sortzen duten negozioak.

Ruta 31 sariak (bakoitza 1.500 eurokoa) "CEIN Startup Day" ekitaldian eman ziren. Hauek izan ziren sarituak:

Mediación Verde Consulting SL, trantsizio energetikoko eragile berria, energia berriztagarrietan eta gatazka-kudeaketan espezializatutako talde batek osatua. Komunikazio, elkarrizketa eta bitartekotzako tresna profesionalekin lan egiten dute, lurraldeetan proiektuen gizarte-lizentziaren maila areagotzeko.

Vivo Burger, gourmet hanburguesaren kontzeptua Iruñean, haragiaren eta sukaldaritzaren arloko adituek babestua. Ekitaldi gastronomiko nazionaletan ezaguna, urtero Espainiako hainbat hiritara zabaltzeko asmoa du, esperientzia paregabea eta kalitate handikoa eskaintzeko.

Parte hartu duten enpresa-proiektuak
384

Sortutako enpresak
85

Bihurketa-ratioa
22%

Prestakuntza-ekintzak
134

Prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileak
909 (554 emakume eta 355 gizon)

Jarraipen-zerbitzuan dauden negozioak
25





CEIN**HEALTH**

CEIN HEALTH

CEIN HEALTH osasun-arloko berrikuntza- eta ekintzailertza-ekimenak sustatzeko, bizkortzeko eta eskalatzeko zerbitzu espezializatuak dituen ibilbidea da, haien enpresa-konfigurazioa, merkaturatzea, eta garapena eta hazkundea ardatz hartzen dituen.

HEALTH AZELERATZAILEA

Osasunaren esparruan negozio-idea berritzaileak dituzten ekintzaileei eta merkatuan gehienez urtebete daramaten startupek laguntzea da HEALTH azeleratzailearen helburua. laz, laugarren deialdian, bost ekintzailertza-proiektu hartu zituen.

Ekimen bakoitza kokatzen den fasera egokitutako prestakuntza-ibilbide baten bitartez, azeleratzaile horrek parte-hartzaileen ideiak baliozkotzea eta negozio-eredua garatzea hartzen du ardatz. Prozesu hori osasunaren merkatuan esperientzia duten jarduneko profesionalen tutoretza indibidualekin eta aholkularitza espezializatuarekin konbinatzen da.

Parte hartu zuten proiektuen artean, "HEALTH azeleratzailearen 2024ko proiekturik onenaren" saria (8.000 euroko zuzkidura, proiektua abian jartzeko) erabaki zuten, eta ex aequo eman zieten InsAlght eta Bellezón proiektuei.



InsAlght proiektuak proteinen produkzio, manufaktura eta I+Garekin erlazionatutako propietateak optimizatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu, baita proteinak neurrira diseinatzeko zerbitzuak ere, berrikuntza-maila handikoak eta patentatzeko modukoak.

Bellezón proiektuak, bestalde, larruazalerako teknologia berritzailea garatzen du. BCare enpresaren proiektuak areola-titiburu konplexuaren epitesi hiperrealista eta autoitsasgarria planteatzen du. Berrerabilgarria da eta bizitza baliagarri luzea du.

HEALTH SCALEUP

Laugarren edizioa bete zuen HEALTH ScaleUp programaren helburua da osasun-sektoreko startupen hazkundera eta finkapena ahalbidetzea, ikuspuntu teknologikotik duten heldutasunera egokitutako zerbitzu espezializatuen bitartez.

Esparru horretan, erdi-mailako heldutasun teknologikoari (TRL 3-5) dagozkion garapen-mailetan dauden lau startupek beren hazkunderako lehentasunezkoak ziren plan estrategikoaren zenbait esparru jorratu zituzten. Bestalde, erdi- eta goi-mailako heldutasun teknologikoari (TRL 5-8) dagozkion faseetan dauden bederatzi startupek teknologia sanitario, farmazeutiko eta bioteknologikoen lizentziak ematea hartu zuten ardatz.

Gainera, startupen eskalatzea indartzeko, nazioko eta nazioarteko esparruko inpaktu handiko ekitaldi sektorialetan parte hartzen laguntzen diegu. Zehazki, 2024an haiekin batera parte hartu genuen honako ekitaldi hauetan: AseBio Investor Day (Donostia), Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Bio-osasuneko 9. Topaketa eta BioEurope (Paris).

Bestalde, topaketak antolatu genituen zenbait aditurekin, hala nola Mariano Barbacidekin (AXA-CNIO taldeko onkologia esperimentaleko burua) eta Henar Heviarekin (EMEA Therapeutic Area Lead, Oncology at Johnson and Johnson Innovative Medicine), eta jarduera Berrikuntza Mintegian garatzen duten osasun-sektoreko startupekin. Topaketa horietan, startupek zientzia, teknologia eta berrikuntzako sisteman betetzen duten eginkizuna aztertu zuten.

HEALTH azeleratzailearen proiektuak

5

Gizonak

8

Emakumeak

6

HEALTH ScaleUp programan parte hartu duten startupak

- BabyNeti
- Betternestic
- Darwin Biomedical
- Diabyuda
- Genbioma
- Innoup Pharma
- Leadartis
- MOA Foodtech
- Nanogrow Biotech
- Naturpos
- Nucaps
- Opportunity Health
- Ysium Medical

AseBio Investor Day ekitaldian parte hartu duten startupak

- Betternestic
- Bread Free
- Genbioma
- Ingredalia
- Leadartis
- Nucaps
- Ysium Medical
- Innoup Farma

9RNAEN ekitaldian parte hartu duten startupak

- Mimo Biosciences
- Nanogrow Biotech
- Opportunity Health
- Ysium Medical

BioEurope ekitaldian parte hartu duten startupak

- InnoUp Farma
- Leadartis
- Nanogrow Biotech



CEINDIGITECH

CEIN DIGITECH

Ekintzailletza teknologiko-digitaletako ekimenak identifikatzea, sektorean enpresa-proiektu berriak abian jartzeko erraztasunak ematea eta startup digitalen hazkundea eta eskalatzea bultzatzea, horiexek dira 2024an Tech FabLab programan kokatu den CEIN DIGITECH ibilbidearen helburuak.

Tech FabLab RETECH “Ekintzailletza Digitaletako Sareak” deialdiaren parte da, eta Eraldaketa Digitaletako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak finantzatzen du Next Generation EU Europako funtsen bitartez.



DIGITECH AZELERATZAILEA ETA DIGITECH MARKET FIT

DIGITECH proiektu digitalen azeleratzaileak 2024an amaitu zuen bere laugarren edizioa, merkaturako prest dauden proiektuetan parte hartzen duten 19 ideia teknologiko-digitalak eraldatzeko.

Programa horren bidez, gure komunitatean ekintzailletza-ekosistema digitalari ematen diogun bultzada indartzen dugu, proiektuak egitura sendoaz hornitzen dituen eta ekintzaile taldeak merkaturako erronkei aurre egiteko prestatzen dituen ikusmolde integrala aintzat hartuta.

Hala, ekintzaileek CEINeko taldearekin eta espezialistekin batera lan egin zuten beren ekimenak hezurmamitzen, ideari dagozkion hasierako faseetatik produktu minimo bideragarrien garapenera iritsi arte. Jarduera sorta zabala hartu zuten barnean, hala nola arazoaren analisia, baliozko proposamenen eraikuntza, hipotesien baliozkotzea edo prototipogintza. Prozesuan zehar, gainera, tutoretza pertsonalizatuak izan zituzten, adituekin batera.

CEINek, halaber, garapen propioa eta prototipo operatiboa eta testatua zuten 12 ekimen digital berritzailearen esku jarri zuen haien produktuak edo soluzioak merkatura iristen laguntzeko programa bat: DIGITECH Market Fit programa.

DIGITECH Market Fit programak prestakuntza teoriko-praktikoa eta tutoretza indibidualizatua eskaini zien parte hartu zuten proiektu eta startupek, haien soluzio eta/edo produktu digitalen prototipoen helburu-merkatuetara sartzeko behar diren merkataritza- eta marketin-estrategiak hedatzeko.

DIGITECH GROWTH

DIGITECH Growth programaren xedea izan zen garapen propioa zuten startup berritzaile teknologiko eta digitalen hazkundea sustatzea, haien hazkunde-plana diseinatzeko eta garatzeko lagunduz.

Bost startup hautatu zituzten programa horretan parte hartzeko. Programak hazkunde-plan baten gakoetan sakondu zuen, enpresaren arlo nagusien analisiaren eta gogoetaren bitartez: merkataritza-arloa, produktu-garapena, finantzaketa eta taldea.

Prestakuntza eta tutoretzak konbinatu zituen prozesua amaitzean, enpresa bakoitzak hazkunde-plan pertsonalizatua zeukan, eta, gainera, espezialistek hura ezartzeko egindako gomendioak.

Gainera, CEIN, zenbait startupekin batera, Valencia Digital Summit-en (Valentzia) egon zen, ekosistema teknologiko eta digitaleko erreferentziazko ekitaldian.



LANTEGI TEKNOLOGIKOAK

Ekintzailatza-proiektuei, startupeiei eta scaleupeiei beren enpresa-prozesuak hobetzeko eta beren produktuak eta estrategiak garatzeko teknologia disruptibo interesgarriak hurbiltzea izan da 2024an garatu diren lantegi teknologikoen helburua.

Saioak, adituek emanak, ikusmolde praktikoa emateko diseinatu ziren, eta honako gai hauek jorratu zituzten: ChatGPT eta AA; salmenta-estrategiak indartzeko eta CRMaren erabilera optimizatzeko adimen artifiziala; salmentak areagotzeko copywritinga, storytellinga eta oratoria; eta produktu digitalak garatzeko no-code tresnak.

DIGITECH azeleratzailearen proiektuak

19

Gizonak

17

Emakumeak

10

DIGITECH Market Fit programan parte hartu duten startupak

- Batai Assistant
- CityNow
- Escape the City
- Flow Serving Solutions
- Ion2AR
- Menuba
- Patrimonio fácil
- Pixology
- TourEliges Caravaning
- TuTransporteOnline.com
- Verso
- Zaindari

DIGITECH Growth programan parte hartu duten startupak

- Dimmension Labs
- Kronis
- QR4events
- RockTheSport
- Zaindari

Science for Industry ekitaldian parte hartu duten startupak

- Betternostics
- Nucaps
- Smart Lean Solutions
- Ysium Medical

4YFN Mobile World Congress ekitaldian parte hartu duten startupak

- Celsos
- Darwin Biomed
- Eversens
- Inbiot
- Nucaps
- Zaindari
- Greendur
- Vors Control

Valencia Digital Summit ekitaldian parte hartu duten startupak

- Batai Assistant
- Betternestic
- Bellezón
- Critical Match
- Dimmension Labs
- Flow Serving Solutions
- Inbiot
- Kronis
- TourEliges
- Caravaning
- Uraphe
- Ysium Medical
- Zaindari

OTD Challenge ekitaldian parte hartu duten startupak

- Fuvex
- Greendur
- Nawatia
- Pyroistech
- Tedcas
- Uraphex
- VorsControl

Foro Transfiere ekitaldian parte hartu duten startupak

- Celsos
- Fuvex
- Genbioma
- Ingredalia
- Nucaps

Lantegi teknologikoak

5

Gizonak

138

Emakumeak

134





CEINAGROFOOD

CEIN AGROFOOD

Nekazaritzako elikagaien sektorea da CEIN AGROFOOD ibilbidearen protagonista. Ibilbide horrek zerbitzu espezializatuak ematen ditu sektorean jarduten duten enpresak sustatzeko, azeleratzeko eta eskalatzeko.

AGROFOODTECH AZELERATZAILEA

Nekazaritzako elikagaien sektorean ideia berritzaileak eraldatu eta startup bideragarri eta denboran jasangarri bihurtzea izan da 2024an bere hirugarren edizioa bete zuen AGROFOODTech programaren helburua.

Azeleratzaile horrek 19 proiektuekin hasi zuen bere lehen fasea, negozio-ereduaren definizioa eta prototipogintza lantzen. Aurrera jarraitzeko 11 ekimen hautatu zituzten, haien egingarritasun operatiboan eta garapen potentzialean oinarrituta. Hautatutako proiektuek beren produktu minimo bideragarriak agertoki errealean sortzen eta baliozkotzen lan egin zuten. Gero, azelerazio-programa intentsiboa hedatu zen, eta han jorratu ziren bereizkuntza-, hazkunde- eta finantzaketa-estrategiak, arrakasta-bermerik handienak zituen enpresa-proiektua merkatura eramateko asmoz.



Prozesuan, ekintzaileek CEINeko lantaldearen sostengua izan zuten, baita sektoreko erreferentziazko erakundeen laguntza ere, hala nola Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutuarena (INTIA) eta Nekazaritzako Elikagaien Teknologien Zentro Nazionalarena (CNTA).

Gainera, pertsona ekintzaileak, startupak eta Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresak konektatzeko eta lankidetzak, ikaskuntza eta ideia-trukea sustatzeko asmoz, hainbat jarduerak hartu zituen AGROFOODTech Astea antolatu zen maiatzean. Sektore anitzeko ikusmolde horrek berrikuntza irekia sustatzen du eta sektoreko erronka errealak identifikatzea ahalbidetzen du, parte hartzen duten negozio-proposamenak garatzen lagunduz.

AGROFOOD SCALEUP

AGROFOOD ScaleUp programak laugarren deialdia egin zuen 2024an, helburu bikoitzarekin: nekazaritzako elikagaien enpresa emergenteen hazkundea eta eskalatzea bultzatzea, eta sektoreko ETEak AgrofoodTech berrikuntza-ekosisteman integratzea.

Testuinguru horretan, alde batetik, programak hautatutako zazpi startup eta scaleupi eman zien funtsak negoziatzeko eta erakartzeko prozesuan laguntzeko programa bat, haien garapen-mailara eta finantzaketa-beharretara egokitua.

Bestalde, nekazaritzako elikagaien sektorean jarduten duten beste sei ETEk dibertsifikazio-estrategiei eta startup berritzaileetako inbertsioan inplikaturako prozedurei buruzko prestakuntza aditua jaso zuten. Parte hartu zuten ETEek, gainera, sostengua eman zieten parte hartu zuten startupek, mentorizazio-prozesu baten bidez.

AGROFOOD ScaleUp, edizio horretan, programa pilotu baten parte izan zen Europako Food_scaleUp proiektuaren esparruan, zeinaren helburua izan baita nekazaritzako elikagaien berrikuntza digitaleko Europako eskualde-ekosistemen gaitasuna sustatzea.

Inpaktu handiko ekitaldietan parte hartzeari dagokionez, hirugarren urtez jarraian, CEINek startupekin batera parte hartu zuen Food 4 Future ekitaldian (Bilbo). Nazioarteko topaketa horren esparruan, Berrikuntza Mintegian instalaturako Genbioma eta Uraphex enpresek FoodTech Innovation Awards sariak jaso zituzten, “Elikadura osasungarria” eta “Elikaduraren balio-katerako automatizazio- eta robotika-soluziorik onena” kategorietan, hurrenez hurren. Halaber, Ebro Valley Agro Tech (Huesca), AseBio Green Innovation Forum (Iruñea) eta F&A Next (Wageningen, Herbehereak) ekitaldietan ere parte hartu genuen.


AGROFOODTech azeleratzailearen proiektuak

11

Gizonak 12

Emakumeak 5

AGROFOODTech Asteko parte-hartzaileak 80



AGROFOOD ScaleUp programan parte hartu duten startupak eta ETEak

- Bread Free
- Cichorium
- Fruit and Food Products
- Genbioma
- Ingredalia
- Molitor
- Pyroistech
- Abedul Farma
- AIT
- Caviar Pirinea
- CNTA
- Pentabiol
- Zitromac

Food 4 Future ekitaldian parte hartu duten startupak

- Fruit and Food Products
- Genbioma
- Isanatur
- MOA Foodtech
- Nucaps
- Nulab
- Pyroistech
- Smart Comfort
- Uraphex
- Vision Quality

Ebro Valley Agro Tech ekitaldian parte hartu duten startupak

- Coccus
- Fruit and Food Products
- Ingredalia
- Lab4impact
- Navarre Spirits
- Nucaps
- Smart Comfort
- Uroasis

AseBio Green Innovation Forum ekitaldian parte hartu duten startupak

- Bioinsectics
- MOA Foodtech
- Nucaps
- Uraphex

F&A Next ekitaldian parte hartu duten startupak

- Bread Free
- Ingredalia
- MOA Foodtech



CEIN
CYBER
SECURITY

LAB

CEIN CYBERSECURITY LAB

Zibersegurtasuneko ekintzailletza da CEIN Cybersecurity Lab programaren ardatza. Programa hori CEINek diseinatu zuen 2024an, Espainiako Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalaren (INCIBE) laguntzarekin. Institutu hori Eraldaketa Digitaleko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mende dago, Digitalizazioko eta Adimen Artifizialeko Estatu Idazkaritzaren bitartez.



Programa ekintzailletza-ekosistemaren zibersegurtasun-soluzioen eskari gero eta handiagoari zuzenean erantzuteko sortu zen, eta esparru horretan proiektu teknologikoak bultzatzeko ibilbide osoa eskaintzen du. Funtsezko bi jarduketa-ildotan egituratzen den ekimen berri hori pertsona ekintzaileei eta startupek zuzentzen zaie, eta INCIBE Enprende programa Foru Komunitatean inplementatzea dakar berekin.

Alde batetik, hasierako etapetan zeuden proiektuek eta zibersegurtasunari eta digitalizazioari lotutako ideiek programak aintzat hartzen duen inkubazio-prozesuan parte hartu zuten. Hala, parte-hartzaileek eskura izan zuten zibersegurtasunari buruzko prestakuntza aurreratua eta intentsiboa, tutoretza pertsonalizatuekin osatua, beren negozio-ideiak sortzen eta baliozkotzen laguntzeko.

Bestalde, azelerazio-prozesuak lehendik zeuden startupak indartzea hartu zuen ardatz, eta tresna estrategikoak eman zizkien arriskuak kudeatzeko, araudiak betetzeko eta ingurune digital seguruak eraikitzeko. Horretarako, prestakuntza-modulu espezializatu batean eta mentoretza-saio indibidualetan parte hartu zuten, arriskuen kudeaketari, arauak betetzeari eta gorabehera posibleen aurreko erantzunari buruzko ezagutzez hornitzeko, eta negozioaren hazkundea babestuko zuen ingurune ziberseguru bat eraikitzen laguntzeko.

CEIN Cybersecurity Lab programak aurkezpen publikoko fase bat ere aintzat hartu zuen. Fase horretan, epaimahai espezializatu batek ebaluatu zituen parte hartu zuten proiektuen potentziala eta bilakaera. Itxiera-ekitaldian, errekonozimenduak eman zizkieten inkubazio-fasean zeuden hiru proiektuari eta azelerazio-prozesuan zeuden hiru startupek, aurkeztutako ekimenen kalitatea eta inpaktu potentziala nabarmenduz.

Programa horren esparruan, era berean, zibersegurtasunari, berrikuntzari eta ekintzailletza-joerei buruzko sentsibilizazio-hitzaldiak eta zibersegurtasuneko trebetasun espezifikoak hedatzeko lantegi praktikoak antolatu genituen.

Ekimenak lankidetza-ekosistema dauka, Nafarroako lurraldeko funtsezko eragileak integratzen dituen, hala nola Nasertic, Navarra Cybersecurity Center, NUP, IRIS Poloa eta ATANA. Lankidetza-sare horri esker, laguntza integrala eta diziplina anitzekoa eman dakieke ekintzaileei, erakunde bakoitzaren ezagutza espezializatuaz baliatuta.



Saio espezializatuak
4

Saioetako parte-hartzaileak
68

Inkubazio-prozesuan dauden proiektuak
16

Proiektuetan inplikaturako pertsonak
23 (18 gizon eta 5 emakume)

Azelerazio-prozesuan dauden startupak
9

Startupetan inplikaturako pertsonak
10 9 gizon eta emakume bat)

Inkubazio-prozesuan dauden proiektu errekonozituak

- Osés (lehenengoa)
- Safe OT (bigarrena)
- Dateando (hirugarrena)

Azelerazio-prozesuan dauden startup errekonozituak

- Vitio (lehenengoa)
- Ubyko (bigarrena)
- QR4events (hirugarrena)



impulso
EMPRENDEDOR

IMPULSO EMPRENDEDOR



“Berrikuntza, lankidetzeta eta merkatua: ideiak eraldatu eta errealitate bihurtzeko formula ezin hobea”, horixe da ekintzaile berritzaileei beren proiektuak enpresa arrakastatsu gisa merkaturatzeko behar dutena eskaintzen dien Impulso Emprendedor programaren lema.

Programaren hamabigarren edizioan, CEINek programa pertsonalizatua eman zien hautatutako parte-hartzaileei, hasi negozio-ereduaren berrikuspenetik eta merkataritza- eta finantza-estrategiak inplementatzera iritsi arteko guztia bildu zuena. Prozesu horrek barnean hartu zituen salmenta-planen lanketa eta proiektu bakoitzera egokitutako finantza-egituren diseinua.

Zortzi enpresa ospetsuk –Caja Rural de Navarra, Cinfa, Mondragon Korporazioa, Grupo Enhol, Salinas de Navarra, TW Group, Viscofán eta Zabala Innovation Consulting– parte hartzen dute programan mentore gisa, eta beren ezagutza, enpresa-ikuspegia eta esperientzia eskaintzen dituzte, baita zuzkidura ekonomikoa ere. Zuzkidura hori 40.000, 12.000 eta 12.000 euroko hiru saritan banatzen da. Sariak enpresek berek ematen dituzte, parte hartzen duten ekimenek programan duten bilakaeraren eta aurrerapenaren, eta betetzen dituzten mugarrien arabera.

Edizio horretako irabazleek programaren aniztasuna eta berrikuntza islatu zuten. Bellezón startupak eskuratu zuen lehen saria, areola-titiburu konplexuaren protesi hiperrealistari esker, eta Licify eta Hemotic startuppek bigarren saria partekatu zuten, hurrenez hurren, eraikuntza-lizitazioak egiteko eta odol-bankuak kudeatzeko algoritmo matematikoetan oinarritutako soluzioekin. Proiektu horiek berrikuntza teknologikoa ez ezik, beren hurrenez hurrenko merkatuetan inpaktua izateko potentzial garbia ere frogatu zuten.

Parte hartu duten startupak

- Bellezón
- Critical Match
- Hemotic
- Ingredalia
- Licify
- OPTime
- Ubyko

Talde ekintzaileetako pertsonak

22 (18 gizon eta 4 emakume)

Saritutako startupak

- Bellezón (40.000 euro)
- Licify (12.000 euro)
- Hemotic (12.000 euro)



StartUp Leaders

by CEIN

STARTUP LEADERS

Tech FabLab proiektuaren esparruan, CEINek Startup Leaders programa diseinatu eta abian jarri zuen 2024an, pertsonen kudeaketan esperientzia eta lidergo-gaitasunak dituzten profesionalak startupen edo proiektu teknologikoen nahiz berrikuntza-proiektuen kudeaketan trebatzeko asmoz.

Programa horren lehen edizioan parte hartzeko 15 pertsona hautatu zituzten. Programak ekintzailertzan espezializatutako prestakuntza-ibilbidea eskaini die, estrategia, teknologia, marketina eta salmentak, lidergoa edo finantza-kudeaketa bezalako esparruetan ardaztua. Horrez gain, parte-hartzaileek topaketak izan dituzte erreferentziazko startupetako CEOekin, haien eguneroko errealitatera hurbiltzeko eta esperientziak partekatzeko, eta Valentziako enpresa emergenteen ekosistema bisitatu dute.



Startup Leaders programako parte-hartzaileak
15 (9 gizon eta 6 emakume)

IRUÑA
EKINTZAILE
2024

IRUÑA EKINTZAILE

Iruña Ekintzaile programak, Iruñeko Udalaren eta CEINen arteko lankidetzari esker bultzatuak, hamaikagarren edizioa bete zuen 2024an, jasagarritasunean bereziki ardaztuta (aurreko hiru urteetan bezalaxe).

Ekintzaile izateko kezka zuten 24 pertsonak prestakuntza, laguntza, aholkularitza eta mentoretza jaso zuten lau hilabetez, negozio ideiak aurkitzeko eta garatzeko. Erabiltzen diren metodologiek bilatzen dute parte-hartzaileak beren ikaskuntzaren egile bihurtzea, eta aukera ematen diete beren ideiak definitu eta konfiguratzeko eta enpresa-proiektu bihurtzeko, baita beren ekintzailtza-konpetentziak garatzeko ere.



Hori guztia, CEINeko ekintzailtzako aditu taldearen eskutik eta hainbat esparrutako espezialisten lankidetzarekin eta proiektuei feedbacka ematen dieten mentoreekin.

Programaren hasieran, gainera, online masterclass bat ezagutzera eman zen, programan parte hartzera animatuko zuten erreferentziatzko elementuak eskaintzeko eta ekintzailtza jasagarriari buruzko garrantzizko gakoak ezagutarazteko.

Iruña Ekintzaile programako parte-hartzaileak

24 (18 emakume eta 6 gizon)

Azken jardunaldian aurkeztutako proiektuak

- AIRMED Fisioterapia
- CANAE
- Comunicación de investigaciones científicas
- Dulantzi Lopetegui y Eunat Redín
- Legaltech
- MJ JURADO Diseño de Interiores
- Quacklity
- Yesica Silva

VIVEROSCEIN 

VIVEROS CEIN



CEINen helburu nagusietako bat gure eskualdeko startup berritzaileen hazkundea eta eskalatzea ahalbidetzea da. Horretarako, 1991z geroztik Berrikuntza Mintegia dauka, Noainen kokatua, eta 2009az geroztik Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Mintegia (Nekazaritzako Elikagaien Mintegia), Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hirian kokatua.

Mintegi horietan kokatzen diren enpresek, beren jardura garatzeko lokal bat, laborategi komunak eta espazio berritzaileak eskura izateaz

gain, beren sektorerako egokitutako ibilbide pertsonalizatua dute, eta CEINeko lantalde teknikoak eta profesional espezialistek ematen dieten prestakuntza eta laguntza. Eta, garrantzizkoena, instalatutako startupak babestu eta hazarazten dituen ekintzailetza-ekosistema berritzaile baten parte dira.

Era berean, baliozko beste zerbitzu batzuk ere badituzte, hala nola jarraipen-tutoretza indibidualak, networking-jarduerak, trakzio-enpresekin eta beste eragile eta erakunde batzuekin trebakuntza eta harremanak errazteko lantegiak, ahaztu gabe inpaktu handiko ekitaldi nazional eta nazioartekoetara joatea edo azelerazio- eta eskalatze-programak, bai sektorialak bai zeharkakoak.

Gainera, gure eskualdeko startup guztien hazkundea eta eskalatzea ahalbidetzeko, CEINeko mintegietan instalatuta egon nahiz ez, CEIN HEALTH, CEIN AGROFOOD eta CEIN DIGITECH programa espezializatuak garatzen dira.

Abian jarri zirenetik, guztira 270 startup egon dira mintegietan instalatuta, eta ematen dituzten laguntza eta zerbitzuei esker, haien biziraupen-ratioa % 84an kokatzen da sartzen direnetik hiru urtera.

Iaz 46 startupek garatu zuten beren jardura mintegietan. CEINek, mintegi horietatik, izaera berritzailea duten enpresa emergenteei babesa ematen die hazkunde- eta eskalatze-prozesuetan. Instalatutako enpresek 44 lanpostu sortu zituzten ekitaldian, eta haien enpleguak % 21 egin zuen gora.

Laneko 13 lantegi eta 27 networking-jardura antolatu ziren, eta, gainera, startupek aukera izan zuten inpaktu handiko zenbait ekitalditan parte hartzeko, hala nola Science for Industry (Madril), Mobile World Congress-eko 4YFN (Bartzelona), OTD Challenge (Iruñea) eta Foro Transfiere (Málaga) ekitaldietan eta Investor Day ekitaldian, CEIN Startup Day ekitaldiaren esparruan.

Bestalde, CEIN Startup Day ekitaldian bi errekonozimendu eman zizkieten mintegietako enpresei. Bioinsectics enpresak “2024an enplegu gehien sortu duen CEINeko berrikuntza-mintegietan instalatutako startuparen saria” jaso zuen, sei hilabeteko doako instalazioan zetzana. “Berrikuntza-mintegietan instalatutako startuparen ibilbidearen errekonozimendua” mintegian 2003an abian jarri zen Helphone enpresarentzat izan zen.

Gainera, Uraphex, Nucaps, MOA Foodtech, Genbioma, Ingredalia eta Medical Plasmas startupak “TOP101 Spain Up Nation” sariaren lehen edizioan errekonozitu zituzten Nafarroan gizarte- eta/edo ingurumen-inpaktu handiena duten enpresa berritzaileen artean. CEIN partaide duen Eskualde Garapeneko Agentzien Espainiako Elkarteak (ADR Foroa), Sodenak eta Berrikuntza Enpresa Nazionalak (ENISA) sustatzen dituzte errekonozimendu horiek. Uraphex TOP101 enbaxadore gisa errekonozitu zuten.



2024an instalatutako startupak
46

Startupetan enplegatutako pertsonak
260

Enpleguaren igoera
44 (+21%)

Networking-jarduerak
27

Lantegi espezializatuak
13

4 startup irten dira

- Pentaqua
- Palobiofarma
- Medibiofarm
- Ikan Biotech (jarduera uzten du)

10 startup sartu dira

- Ingredalia
- Dimmension Labs.
- Molitor
- Acuicultura y Biotecnología
- Insaight Research Center
- Diabetes Cure Research Association
- Critical Match
- Bellezón
- Nanogrow Biotech
- Nutripets e Innovación







etr.

yo emprendo en
turismo rural

LANDA TURISMOKO EKINTZAIETZA

Landa Turismoko Ekintzailletza programa 2024an garatu zen, gure komunitateko landa-turismoari kalitatezko zerbitzua emango dioten negozio berritzaileen sorrera bultzatzeko helburuarekin. Landa-turismoaren esparruan negozio berritzaileen sorrera sustatzeko diseinatutako ekimen horretan programa arrakastaz osatu zuten zortzi proiektuk parte hartu zuten.

Landa Turismoko Ekintzailletza programak ikusmolde integrala eskaini zuen, prestakuntza espezializatua laguntza pertsonalizatuarekin konbinatuta. Negozio-eredu turistiko jasagarriak diseinatu, baliozkotu eta eratzeko eta ekintzailletza-trebetasunak garatzeko trebakuntza jaso zuten parte-hartzaileek. Gainera, eskuratutako ezagutzak beren proiektu espezifikoetara egokitzeko aukera eman zieten tutoretza indibidualez baliatu ziren.

Nabarmentzekoa da parte-hartzaileek Nafarroako landa-esparruan turismo-negozioen arrakasta-kasuak ezagutzeko aukera izan zutela, eta esperientzia errealekiko esposizio horrek inspirazioa eta ezagutza praktikoa baliotsuak eman zizkiela.



Gainera, programa aberastu zuten bi jardunaldi tematiko antolatu ziren. Lehenengoa landa-turismoko joera emergenteetan zentratu zen, eta sektorearen eta haren aukeren ikuspegi eguneratua eskaini zien parte-hartzaileei. Bigarren jardunaldiak landa-turismoko proiektuak bultzatzeko erabilgarri dauden finantzaketa-aukerak izan zituen aztergai, eta negozioen bideragarritasun eta hazkunderako informazio erabakigarria eskaini zuen.

Programa hori Nafarroako Turismoko Prestakuntza Planean (2020-2024) kokatzen da, eskualdean kudeaketa turistikoa profesionalizatu nahi duen Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren ekimenean. Gainera, Europar Batasunaren Next Generation funtsen finantza-babesa du, eta horrek azpimarratzen du zenbaterainoko garrantzi estrategikoa duen Nafarroako landa-eremuen garapen ekonomiko eta jasangarrirako.

Programa amaitzen duten proiektuak
8

Proiektuetan inplikaturako pertsonak
9 (5 emakume eta 4 gizon)

“Landa-turismoko joerak” jardunaldiko parte-hartzaileak
45 (29 emakume eta 16 gizon)

“Nafarroan landa-turismoa bultzatzeko berrikuntza eta finantzaketa-estrategiak” jardunaldiko parte-hartzaileak
50





MUJER

LIDERAZGO

EMAKUMEA ETA LIDERGOA PROGRAMA

CEINek programa berri bat jarri zuen abian 2024an, startup eta enpresetako emakume ekintzaileei eta zuzendariei prestakuntza eta tresnak ematera zuzendua, enpresa-lidergo eraginkorra izan zezaten.

Zehazki, jardunean zeuden emakumezko CEOei (zuzendari nagusiak) eta CTOei (teknologiako zuzendariak) zuzentzen zitzairen, edo aurki eginkizun hori CEINeko ekosisteman edo Nafarroako enpresetan beteko dutenei.

Beste zenbait esparruren artean, parte hartzeko hautatutako 10 emakumeek egungo lan-ereduak eta enpresa-lidergokoak, soft skill deritzenak (nortasunaren ezaugarriak buruzko konpetentziak) eta sare profesionalak jorratu zituzten, eta lidergo eraginkorra lortzen lagunduko dien ekintza-plan indibidual bat garatu zuten.

Ekimen berri hori Emakume Erreferenteen I. Topaketan aurkeztu zen. Topaketa martxoaren 7an egin zen CEINen, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko, emakumeek gidatutako berrikuntzaren eta zientziaren inguruko errekonozimendu- eta networking-espazio bat sortzeko, inspiratzeko eta ahalduntzeko asmoz.

Gainera, irailean Emakumeen Talentuari eta Lidergoari buruzko II. Topaketa egin zen, emakumezkoen sareak eta emakumeek gidatutako ekintzailetza-prozesuetan laguntzeko taldeak sortzearen garrantzia ardatz hartu zuena.





Programako parte-hartzaileak
10

Topaketetako parte-hartzaileak
180







IRIS

POLO DE
INNOVACIÓN DIGITAL
DE NAVARRA

IRIS-EDIH EKINTZAK

Berrikuntza Digitalaren Gunearen Europako IRIS-EDIH programaren esparruan, CEINek Bio Startup MBA ibilbidearen bigarren edizioa garatu zuen, berrikuntza, esparru bioteknologiko eta digitaleko irtenbide profesional gisa, eta esparruotako negozio-aukeren identifikazioa ardatz hartuta.



Parte-hartzaileak – NUPeko Bioteknologiako Ikerketa eta Berrikuntzako Master berriko 13 ikasle— hainbat alderdi ezagutu zituzten; besteak beste, bioteknologiako joerak, berrikuntza-prozesuak eta berrikuntzaren buru diren startupak, eta aukerak detektatzeko eta baliozko proposamenetan egituratzeko tresnak.

Europako proiektuaren barruan ere hiru lantegi antolatu genituen. Horietako lehena, Fundecyt erakundeak koordinatutako Extremadurako EDIHarekin batera, Extremadurako enpresa zehatzen behar teknologikoak ezagutzera emateko, Nafarroako startupek soluzio-proposamenak aurkez zituzten, eta, bestetik, Nafarroako startupek erronka teknologikoak aurkezteko, Extremadurako EDIHko hornitzaile teknologikoek konponbidea eman ziezaieten.

Gainera, Nafarroako Industriaren Elkartearekin (AIN) batera, erronka teknologikoei aurre egiteko topaketa bat antolatu genuen Nafarroako enpresekin, eta, Nagrifood erakundearekin lankidetzan, Nafarroako agro-foodtech startupen/scaleupen eskalatze industrialerako erronkak aztertu eta eztabaidatzeko lantegi bat.

Bio Startup MBA programako parte-hartzaileak

13 (11 emakume eta 2 gizon)

Topaketetako parte-hartzaileak

48 (34 gizon eta 14 emakume)



navarra**emprende**

NAVARRA EMPRENDE (NAFARROA EKINTZAILE)



Ekintzaitzari Laguntzeko Nafar Sarea osatzen duten erakundeek jardura islatzen du navarraemprende.com atariak. CEINek kudeatzen duen gune horrek eduki dibulгатzaileak (informazioa eta zerbitzuak), praktikoak eta interesei buruzkoak jasotzen ditu, bereziki pertsona ekintzaileak eta langile autonomoak ardatz hartuta.

Besteak beste, navarraemprende.com webguneak atal espezifiko bat du, Historia errealak, ekintzaileek parte har

dezaten irekia. Bertan, beren proiektuak ezagutaraz ditzakete eta beren ekintzaitza-erperientzia lehen pertsonan kontatu, beste pertsona batzuentzat inspirazio-iturri izan dadin.

Erabiltzaile berriak
121.332

Ikusitako orriak
238.164

Eduki berriak
450



LAGUNTZA TEKNIKOA

LAGUNTZA TEKNIKO

Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentala den aldetik, Foru Gobernuko hainbat departamentutako prozesu eta kudeaketa-zerbitzuetarako laguntza tekniko ematen du CEINek.

Izan ere, CEINeko lantaldeak 6.400 laguntza-espeditente inguru kudeatu eta tramitatu ditu, besteak beste, honako esparru hauei lotuak: industriako ETEak, nekazaritzako elikagaien industria, enpresa-lehiakortasuna eta enpresa-sustapena, energia eta autokontsumoa, I+G, unibertsitateak edo proiektu estrategikoak.

Trantsizio energetikoari dagokionez, 3.475 txosten baino gehiago egin ziren energia berriztagarrien instalazioetan eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetan egindako inbertsioen kenkari fiskaletarako.

Era berean, 1.230 energia-ziurtagiri erregistratu ziren, eta petrolio-instalazioak erregistratzeko 100 espeditente eta behe-tentsioko instalazio elektrikoak erregistratzeko 200 espeditente berrikusten eta kudeatzen lagundu zen.



Gainera, iaz, CEINek nazioartekotzeari lotutako zenbait ekintza eta laguntza kudeatzen lagundu zuen. Adibidez, NAEX DIGITAL programa (Nafarroako ETEentzako nazioartekotze-estrategia digitalari laguntzeko) eta NAEX DESTINO programa (Nafarroako enpresei helmugatik egindako zerbitzu espezializatu eta pertsonalizatuak eskaintzen dizkiena), 80 enpresa baino gehiagoren parte-hartzea izan dutenak, edo Impulsa Bonuak (nazioartekotzen hasi edo nazioartekotzea finkatu nahi duten Nafarroako ETEentzako laguntza), 33 enpresari emandakoak.

Era berean, Nafarroako Gobernuari laguntza eman zitzaion beste zeregin batzuetan, hala nola hainbat erakunderi zuzeneko laguntza emateko hitzarmenak kudeatzen, inbertsio propioen plangintza, kudeaketa edo egikaritzea gauzatzen (energia berriztagarrien, energia-efizientziaren eta mugikortasun elektrikoaren proiektuak) edo Nafarroako Urteko Balantze Energetikoa prestatzen, eta, metrologia-arlotik, neurketa-tresnen 3.600 egiaztapen inguru egiten.


Kudeatutako laguntza-espeditenteak
6.400

Erregistratutako energia-ziurtagiriak
3.475

Kenkari fiskaletarako txostenak
1.230

Neurketa-tresnen egiaztapenak
3.600





Cpin'

Gobierno  Nafarroako
de Navarra Gobernua

cpen